





Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas



Beasaingo udala

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, INFORMAZIO LAGAPENERAKO

CONVENIO DE COLABORACIÓN EN MATERIA DE CESIÓN DE INFORMACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS Y EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

Donostia,

2014 UZT. 04

BILDURIK

Alde batetik, Helena Franco Ibarzabal andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua, Foru diputatuen izendapenari buruzko ekainaren 30eko 5/2011 Foru Dekretuaren bidez izendatua.

Beste aldetik, Koldo Agirre Mujika jauna, Beasaingo Udaleko alkate-lehendakaria (aurrerantzean, Udala), 2014ko maiatzaren 27an Alkateak emandako Ebazpenaren arabera.

Bi aldeek onartzen diote elkarri hitzarmena izenpetzeko lege ahalmen nahikoa, eta hein horretan, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

I.- Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta udalarentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

II. - 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 4.1. c) artikuluan dioenari jarraituz, herri administrazioen arteko harremanak arautu behar dituzten printzipioen artean dago gainerako administrazioei beren eskumenak

San Sebastián,

2014 UZT. 04

REUNIDOS

De una parte, Dña. Helena Franco Ibarzabal, Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en virtud del Decreto Foral 5/2011, de 30 de junio, de nombramiento de los diputados forales.


De la otra, D. Koldo Agirre Mujika, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Beasain (en adelante, el Ayuntamiento), en virtud de la Resolución de Alcaldía del 27 de mayo de 2014.

Ambas partes se reconocen capacidad legal suficiente para suscribir el presente convenio, y a tal fin

MANIFIESTAN

I.- El Departamento de Hacienda y Finanzas, de una parte y los Ayuntamientos, de otra, requieren, para el desarrollo de las funciones y el ejercicio de las competencias que tienen encomendadas, establecer un sistema estable y recíproco de intercambio de información.

II. - La Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, establece en su artículo 4.1.c) que uno de los principios que deben presidir las relaciones entre las Administraciones Públicas es el de facilitar a otras





Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas



Beasaingo udala

baliatuz darabilten jarduerari buruz behar duten informazioa ematea.

Administraciones la información que precisen sobre la actividad que desarrollan en el ejercicio de sus propias competencias.


III- Datuen erabileran eta lagapenean aintzat hartu beharrekoak dira datu pertsonalen babeserako araudian eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean eta informazioaren lagapena arautzen duten gainerako xedapenetan aurreikusitako muga guztiak.

III- El uso y cesión de datos está sujeto a las limitaciones previstas en la legislación protectora de los datos de carácter personal y en la Norma Foral General Tributaria, y demás disposiciones que regulan el suministro de información.

IV. - 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, onartzen du herritarrek eskubidea dutela jada herri administrazioen esku dauden datu eta dokumentuak ez aurkezteko. Bestalde, 23/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, datuen igorpena arautzen duten printzipioak ezartzen ditu, eta horien artean aipatzen du administrazioen esku dauden datuak eta agiriak ez aurkezteko herritarrek duten eskubidea gauzatzeko benetan balio izatea. Hori horrela, hartzaileak ez die interesdunei eskatuko igorpenaren xede den informazioari buruz emailak berak egindako ziurtagiri edo agiriak aurkez ditzatela.

IV. - La Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los datos y documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas. Por su parte, el Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, establece como principio que rige la transmisión de datos, el cumplimiento efectivo del derecho de la ciudadanía a no aportar los datos y documentos que obren en poder de las administraciones públicas. En este sentido, el órgano cesionario no exigirá a las personas interesadas que aporten certificaciones o documentos expedidos por el órgano cedente referidos a la información objeto de transmisión.





V.- Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari dela:

"1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkartek; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestorak barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babesa eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.

5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik beharko. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikuluan 1 apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko."

VI. Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

"1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin


V.- El artículo 91 de la Norma Foral General Tributaria establece en lo que se refiere a la obtención de datos por parte de la administración tributaria:

"1. Las autoridades, cualquiera que sea su naturaleza, los titulares de los órganos de los Territorios Históricos, de las Comunidades Autónomas, del Estado y de las Entidades Locales; los organismos autónomos y las entidades públicas empresariales; las cámaras y corporaciones, colegios y asociaciones profesionales; las mutualidades de previsión social; las demás entidades públicas, incluidas las gestoras de la Seguridad Social y quienes, en general, ejerzan funciones públicas, estarán obligados a suministrar a la Administración tributaria cuantos datos, informes y antecedentes con trascendencia tributaria recabe ésta mediante disposiciones de carácter general o a través de requerimientos concretos, y a prestarle, a ella y a sus agentes, apoyo, concurso, auxilio y protección para el ejercicio de sus funciones.

5. La cesión de datos de carácter personal que se deba efectuar a la Administración tributaria conforme a lo dispuesto en el artículo anterior, en los apartados anteriores de este artículo o en otra norma de rango legal, no requerirá el consentimiento del afectado. En este ámbito no será de aplicación lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 21 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. "

VI. A su vez, el artículo 92 de la Norma Foral General Tributaria establece en lo que se refiere a la cesión de datos tributarios:

"1. Los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones tienen carácter reservado y sólo podrán ser utilizados para la efectiva aplicación de los tributos o recursos cuya gestión tenga encomendada y para la imposición de las





izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.

d) Beste edozein herri administrazioarekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.

l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.

..... ”

VII. Herri administrazioen arteko harremanetan nagusitu behar den lankidetzaren esparruan, eta beren jardueran gidari izan behar dituzten eraginkortasunaren eta herritarrei zerbitzua ematearen printzipioak betez, bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute informazio truke hori zer-nolako baldintzatan egingo duten arautzea. Truke horretarako, baliabide informatiko edo

sanciones que procedan, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, salvo que la cesión tenga por objeto:

b) La colaboración con otras Administraciones tributarias a efectos del cumplimiento de obligaciones fiscales en el ámbito de sus competencias.

d) La colaboración con las Administraciones públicas para la lucha contra el delito fiscal y contra el fraude en la obtención o percepción de ayudas o subvenciones a cargo de fondos públicos o de la Unión Europea.

j) La colaboración con órganos o entidades de derecho público encargados de la recaudación de recursos públicos no tributarios para la correcta identificación de los obligados al pago.

l) La colaboración con las Administraciones públicas y demás entidades que integran el sector público para el desarrollo de sus funciones, previa autorización de los obligados tributarios a que se refieran los datos suministrados.

m) La colaboración con las Administraciones Públicas territoriales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la recaudación de los ingresos de derecho público de su competencia.

..... ”

VII. En el marco de la colaboración mutua que debe presidir las relaciones entre las Administraciones Públicas, y en aplicación de los principios de eficiencia y servicio a los ciudadanos que han de regir su actuación, ambas partes consideran necesario regular las condiciones de suministro bilateral de información, que se producirá utilizando preferentemente medios informáticos o





Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas



Beasaingo udala

telematikoak lehenetsiko dira, eta betiere zaindu egingo dira pertsonak eta entitateak babesteko berme eta eskubide guztiak, zehazki, herri administrazioen esku dauden datuei dagokienez.

23/2010 Foru Dekretuak, bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, 47. artikuluko 2. apartatuan xedatzen duenaren arabera, Foru Administrazioaren eta beste administrazio publikoen artean bitarteko elektronikoak erabiliz egiten diren datu igorpenak bideratzeko ohiko tresna lankidetzaz hitzarmena izango da, batez ere datu igorpen hori aldizka edo jarraian egin behar bada, eta datu horiek interesdun ugariri buruzkoak badira edota datu horiek askori eragiten badiete.

VIII.- Azaldutako guztiagatik, bi aldeek onartu egin dute izenpetzea honako lankidetzaz hitzarmen hau, eta hori arautzeko ondorengo

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da zehaztea zer nolako muga eta baldintza orokorrek arautuko duten Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta hori izenpetzen duten Gipuzkoako udalen arteko informazio truke aldebikoa eta beren informazio sistematarako elkarri emango dieten sarbidea.

Sinatzaileek hitzarmenarekin bete nahi duten helburua da beraiei esleitutako zereginak gauzatzeko beharrezkoa duten informazioa eskuratzea.

BIGARRENA.- Informazio lagapenaren helburua eta datuen titularra den pertsonaren baimena.

telemáticos y con salvaguarda de las garantías y los derechos que asisten a las personas y entidades en relación a sus datos en poder de la administraciones públicas.

Tal y como dispone el apartado 2º del artículo 47 del Decreto Foral 23/2010, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, los convenios de colaboración son el instrumento habitual para canalizar las transmisiones de datos por medios electrónicos entre la Administración Foral y otras administraciones públicas, cuando hayan de efectuarse periódicamente o de forma continuada en el tiempo y dichos datos se refieran o afecten a un elevado número de personas.

VIII.- Por todo lo expuesto, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio de colaboración que se registrá por las siguientes:

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto

El presente Convenio tiene por objeto establecer los términos y condiciones generales que han de regir el intercambio bilateral de información y el recíproco acceso a sistemas de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas y cada uno de los Ayuntamientos de Gipuzkoa que lo suscriban.

La finalidad del convenio para los suscribientes es obtener la información necesaria para el ejercicio de las funciones que tienen encomendadas.

SEGUNDA.- Finalidad del suministro de la información y autorización de la persona titular de los datos.





Informazio igorpen edo lagapen oro behar bezala arrazoituta egongo da, aldi oro hartzaileari esleituak dituen zereginak betetzeak dakartzan beharrezko erantzun behar dien neurrian, eta ezinbesteko izango du interesdunaren baimena jasotzea, legeak besterik esaten ez badu behintzat.

HIRUGARRENA.- Informazio lagapenaren edukia

1.- Hitzarmen honen babespean eratuko dira da administrazio hartzaileari egitea bidezkoa den informazio lagapen oro; betiere hitzarmenean azaldutako eskakizun guztiak betetzen badira, eta klausula eta printzipio guztiak aintzat hartzen badira.

2.- Udalak Ogasun eta Finantza Departamentuari informazioa ematea.

Apartatu honetan arautzen da zer-nolako informazioa emateko eskatuko dien Ogasun eta Finantza Departamentuak oro har Gipuzkoako lurralde historikoko udalei, berari esleitutako eginkizun batzuk, gipuzkoar zergadunekin zerikusia dutenak, betetzeko beharrezkoa duelako.

Zehazki, honako eranskin ereduak gaineratu dira hitzarmenean, bi aldeek izenpetu beharrekoak:

- A-1 eranskina. Biztanleen erroldako datuak.
- A-2 eranskina. OHZren errekararen kudeaketatik eratorritako datuak, etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko bizilekua ez denean.
- A-3 eranskina. Obra baimenen

Todo suministro o cesión de información se justificará en base a las necesidades derivadas del desempeño de las funciones que tiene atribuidas en cada momento el cesionario y requerirá del consentimiento inequívoco de la persona interesada salvo que la ley disponga otra cosa.

TERCERA.- Contenido del suministro de información


1.- Este convenio amparará la totalidad de los suministros de información que proceda realizar a la administración cesionaria, siempre que dicho suministro cumpla con todos los requisitos y observe todas las cláusulas y principios en él contemplados.

2.- Suministros de información por parte del Ayuntamiento al Departamento de Hacienda y Finanzas:

Se regulan en este apartado aquellos suministros de información que requiere el Departamento de Hacienda y Finanzas del conjunto de los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas en relación con los contribuyentes guipuzcoanos.

En concreto, se adjuntan y serán suscritos por ambas partes con el presente Convenio, los anexos-tipo siguientes:

- Anexo A-1. Datos de Padrón de Habitantes.
- Anexo A-2. Datos derivados de la gestión del recargo del IBI sobre las viviendas que no constituyan residencia habitual del sujeto pasivo.
- Anexo A-3. Datos de Permisos de





datuak.

- A-4 eranskina. Ibilgailuen erroldako datuak.

3.- Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak honako informazioa emango dio Udalari:

Apartatu honetan arautzen dira Gipuzkoako lurralde historikoko udalentzat oro har beharrezkoak diren informazio emateak, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduan onartutako eranskin ereduaren katalogoari jarraituz.

Jarraian, udalari berariaz emango zaion informazioa zerrendatuko da.

Hitzarmenarekin batera, Beasaingo Udalak aipatutako katalogoko **eranskin ereduak** ere izenpetzen ditu, zehazki honako hauek:

- D-1 eranskina: Diru laguntzak: zerga betebeharrak betetzea.
- D-3 eranskina: Gizarte Zerbitzuetarako zerga informazioa.
- D-4 eranskina: Diru bilketaren eremurako zerga informazioa.

LAUGARRENA.- Onartutako informazio lagapenetan aldaketak nola tramitatu eta nola gaineratu hitzarmenean beste lagapen batzuk

Onartutako eranskinetan aldaketak egiteko eta behin hitzarmena onartutakoan beste informazio lagapen batzuk gaineratzeko, oro har, honako tramite hauek egin beharko dira:

Obra.

- Anexo A-4. Datos de Padrón de Vehículos.

3- Suministros de información por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas de la DFG al Ayuntamiento:

Se regulan en este apartado aquellos suministros de información que resultan necesarios para el conjunto de Ayuntamientos del Territorio Histórico de Guipuzcoa, de acuerdo con el catálogo de anexos-tipo aprobados por la Orden Foral 148/2014 de 24 de febrero de 2014.

Asimismo, se relacionan los suministros de información específicos para el Ayuntamiento.

El Ayuntamiento de Beasain suscribe con el presente Convenio los siguientes **anexos-tipo** del citado catálogo:

- Anexo D-1: Subvenciones: cumplimiento de obligaciones tributarias.
- Anexo D-3: Información fiscal para Servicios Sociales
- Anexo D-4: Información fiscal para el área de recaudación


CUARTA.- Tramitación de las modificaciones en los suministros aprobados y de las incorporaciones al convenio de nuevos suministros

La modificación de anexos suscritos y la incorporación de nuevos suministros al convenio una vez aprobado requerirán, en general, la siguiente tramitación:





- Hartzailearen aldeko organo eskumendunak egindako eskabide arrazoitua, honako datuak bilduz:
 - Helburua.
 - Lagapena eta entitate hartzailearen eskumena babesten dituen araudia.
 - Datuen titularra den pertsonaren baimena beharrezkoa izatetik salbuesten duen araudia, hala balegokio.
 - Datuen titular diren pertsonen gaineko zehaztapena.
 - Datuen titularraren baimena eskatzen den ala ez, eta horretarako erabilitako bitartekoak eta/edo formula.
 - Laga beharreko datu zehatzak, eta adierazitako helbururako egokitasuna.
 - Lagapen sistema eta horretarako erabilitako baliabide tekniko eta materialak.
 - Maiztasuna eta ukitutako pertsonen edo entitateen kopurua.
 - Emandako datuak gerora lagatzeko aurreikuspenak.
 - Laga beharreko informazioarako sarbidea izateko edo administrazio lagatzaileari eskatzeko baimena duten pertsonak.
 - Erabiltzaileen kudeaketaz eta emandako informazioaren segurtasunaz eta kontrolaz arduratzen den organoa.
 - Auzi juridikoak, informatikoak edo beste auzi material batzuk argitzeko solaskideak.
 - Oro har, egokitze jotako beste edozein gorabehera.
- Solicitud justificada del órgano competente de la cesionaria, que recogerá los siguientes datos:
 - finalidad
 - normativa que ampara la cesión y la competencia de la entidad cesionaria.
 - en su caso, normativa que exima la necesidad de solicitar el consentimiento de la persona titular de los datos.
 - determinación de las personas titulares de los datos.
 - si se solicita o no el consentimiento de la persona titular de los datos y el medio y/o fórmula utilizados.
 - los datos concretos a ceder y su adecuación a la finalidad indicada.
 - sistema de suministro y los medios técnicos y materiales empleados para ello.
 - periodicidad y número de personas o entidades afectadas.
 - previsión de ulteriores cesiones de los datos suministrados.
 - personas autorizadas para acceder a la información o para solicitar a la administración cedente la información suministrada.
 - órgano responsable de la gestión de usuarios y de la seguridad y del control de la información cedida.
 - interlocutores para cuestiones jurídicas, informáticas u otras cuestiones materiales.
 - en general, cualquier otra circunstancia que se estime oportuna.
- Aurkeztutako eskaera bidezkoa dela ziurtatu ondoren, aldaketa hitzarmenean gaineratuko da, edo lagapen berria eranskin gisa, eta administrazio bakoitzeko eskumendun organoek
- Comprobada la idoneidad de la solicitud presentada, en su caso se incorporará la modificación o la nueva cesión como Anexo, que será suscrito por los órganos competentes de cada administración.





Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas



Beasaingo udala

izenpetu beharko dute. Horrek ez luke ekarriko ondoko klausuletan adierazitakoaren galerarik.

Todo ello sin perjuicio de lo señalado en las cláusulas siguientes.

BOSGARRENA.- Hitzarmenari beste informazio lagapen batzuk gehitzea, eranskin eredu bidez, Ogasun eta Finantza Departamentuak hala eskatuta.

QUINTA.- Incorporación al Convenio de nuevos suministros por anexo-tipo, a favor del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Ogasun eta Finantza Departamentuak bere funtzioak betetzeko beharrezkotzat jotzen badu oro har udalen eskutik informazio lagapen bat eskuratzea, horretarako eskaera aurkeztuko du aurreko klausulan adierazitakoari jarraituz, eta, hala badagokio, udal guztiei bidaliko die, formalizatzeko.

Si el Departamento de Hacienda y Finanzas necesita obtener un suministro por parte de la generalidad de Ayuntamientos para el ejercicio de sus funciones (DFG), se formalizará solicitud de acuerdo con lo señalado en la cláusula anterior y se remitirá, en su caso, a la totalidad de los Ayuntamientos para su formalización.

SEIGARRENA.- Bestelako informazio lagapen batzuk onartzea, hitzarmenaren babespean

SEXTA.- Aprobación de otros tipos de suministros al amparo del Convenio

1.- Aldizkakotasunez edo denboran jarraitutasunez egitekoak diren informazio lagapenak.

1.- Suministros de información que se efectúen periódicamente o de forma continuada en el tiempo.

Aldeetariko batak zein besteak planteatuta, bestelako informazio lagapen baten premia sortzen bada, eranskin eredu katalogoan jasota ez dagoena eta bere ezaugarri bereziengatik ez duena merezi horri gehitzea, hitzarmenean eranskin gisa gaineratzeko aukera egongo da, haren edukiaren zati bihurtuta eta haren araupean geratuta. Horretarako, eskaeraren eta baimenaren tramiteak bete beharko dira, hitzarmeneko LAUGARREN klausulan adierazitakoari jarraituz.

Cuando se plantee por cualquiera de las partes una nueva necesidad de suministro de información que no esté incluido en los anexos-tipo del catálogo y se entienda que por sus características particulares no resulta de interés su inclusión en el mismo, podrá incorporarse al Convenio como anexo, pasando a formar parte de su contenido y quedando sujeto a su regulación, previa tramitación de la solicitud y de la autorización en los términos recogidos en la cláusula CUARTA del presente convenio.


2.- Informazio lagapen puntualak.

2-Suministros de información puntuales.

Informazio lagapena puntualtzat hartzeko modukoa denean, hau da, espediente zehatz batean sortutako beharizanari erantzutera bideratuta dagoelako, eta horrenbestez, ez

Cuando el suministro pueda considerarse puntual, esto es, destinado a responder a las necesidades derivadas de un expediente concreto, por lo que no interesa dotarlo de





duelako merezi jarraitutasuna ematea denboran luza daitekeen baimen generiko batekin, eskaera egiteko, hitzarmenaren LAUGARREN klausulan adierazitako datuak zehaztu behar dira, eta bete beharrekoak diren eskakizunak betetzen ote diren aztertu ondoren, lagatzaileak eskaera onartuko du, hala badagokio, eta eskatutako informazioa igorriko dio hartzaileari edo sarbidea ahalbidetuko dio, berarekin hitz eginda, egokitzat jotako bideak erabilita, betiere, datu pertsonalen babesarako araudiak bete beharrekotzat dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun bermeak betetzen baditu.

3.- Aldi baterako informazio lagapenak.

Iraupen mugatua duten informazio lagapenak ere hitzarmenaren babesean onartzeko aukera egongo da, eta hein horretan, haren araupean geratuko dira. Horretarako, lehen aipatutako prozedura bete beharko da, eta aldi baterako formalizatu eta baimenduak izango dira.

4.- Informazio lagapen puntual edota aldi baterakoen eskaeren tramitazioa.

Aurreko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako eskaera puntualen eta aldi baterakoen tramitazioa bizkortze aldera, aukera egongo da onartzeko hartzaileak arduradun bat izendatzea halako eskaerak erabilgarriak diren baliabide telematikoen bidez aurkezteko, aldez aurretik beren burua identifikatuta.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmeneko eranskin gisa onartutako informazio lagapenetan aldaketak egitea

1. Hitzarmenean jada gehituta dagoen lagapen batean aldaketa esanguratsu bat egitea planteatzen bada, lagapen hori arautzen duen eranskina aldatu edo ordezkatzeko aukera egongo da. Horretarako,

continuidad obteniendo una autorización genérica extensible en el tiempo, la solicitud se formulará indicando los datos relacionados en la cláusula CUARTA del presente convenio y, previo análisis del cumplimiento de los requisitos exigibles se autorizará, en su caso, por la entidad cedente, remitiendo o dando acceso a la información solicitada por el cauce que, de acuerdo con la cesionaria, estime oportuno, siempre y cuando reúna todas las garantías de seguridad, integridad y confidencialidad exigidas por la normativa protectora de los datos de carácter personal.

3-Suministros de información temporales.

También podrán acordarse al amparo de este Convenio, quedando por lo tanto sujetos a su regulación, suministros de información limitados en el tiempo que, siguiendo el procedimiento ya indicado, se formalizarán y autorizarán con carácter temporal.

4-Tramitación de solicitudes puntuales y/o temporales de información.

A fin de agilizar la tramitación de las solicitudes puntuales y temporales previstas en los apartados 2 y 3, podrá acordarse que la cesionaria designe a las personas encargadas de formularlas a través de los medios telemáticos disponibles, previa acreditación de su identidad.

SEPTIMA.- Modificaciones en los suministros aprobados por Anexo al Convenio.

1. Cuando se plantee cualquier modificación sustancial en relación con un suministro ya incorporado al convenio, el anexo que lo regula podrá ser modificado o sustituido, previa solicitud justificada de la parte





aldaketa egiteko asmoa duen aldeak eskaera arrazoitua aurkeztu behar du, eta ebazpen edo erabaki berria hartuko dute, hala badagokio, **organo eskumendunek**.

Hitzarmen honetan jasotakoari dagokionean, esanguratsu izaera izango dute informazio lagapenaren helburuari edota edukiari eragiten dioten aldaketek.

2. Funtsezkoak ez diren aldaketak izatekotan, ez da beharrezkoa izango dena delako eranskinaren aldaketa edo ordezkapena formalizatzea. Dena den, lagatako informaziorako sarbide baimendua duten pertsonen izendapenak edo bajak eta/edo izendatutako solaskideen ordezkapenak egiteko, beharrezkoa izango da administrazio hartzaileak eskaera arrazoitua aurkeztea eta administrazio emaileak onartzea, eta haren aipamena eranskinean sartuko da formaltasun gehiagoren beharrik gabe.

ZORTZIGARRENA.- Informazioa emateko sistemak

Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako udalek informazioa emateko adostutako sistemak segurtasun eskema nazionalean (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteko dituzte.

Hitzarmen honi jarraituz aurreikusitako lagapen sistemak hari erantsitako fitxa teknikoan azalduta daude. Halere, etorkizunean sistema berriak ezarri ahal izango dira, betiere araudi aplikagarriak exijitutako beharkizunak betetzen badituzte.

interesada en el cambio y mediante nueva resolución o acuerdo a adoptar, en su caso, **por los órganos competentes**.

